

B

BARREN

TOKIKOM

Egur, sormenari bide emateko eskola



MATRIKULALDIA ZABALIK

Izena emateko epea
otsailaren bukaerara arte.

Etor zaitez eta informazio
guztia emango dizugu.

**UDAL
EUSKALTEGIAK**
Ikasturteacurso **13/14**



Kalebarren plaza, 2
Tel.: 943 742 731
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net



**UDAL
EUSKALTEGIAK**
Ikasturteacurso **13/14**



OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta implanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
- **BERRIAI**
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

**AINHOA FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745

177\12

fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-
koa:
+ Traumatologia.
+ Estetika (zelulitisa, es-
triak)

**Osasunerako ariketa agin-
dua**
(Diabetes, osteoporosis,
hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak
(errehabilitazioa)
3 pertsona gehien.

**Txirindulariaren biomekani-
ka** (kalak, ergonomia bizikle-
tan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.
Tel.: 943 740 191
667 953 628



Ander Izagirre

Aspaldian ez naiz Sallobente aldetik ibili, baina lehen askotan ibiltzen nintzen bailara hartan zehar, naturzale bati ibai txiki batek eskaintzen dion

guztiak disfrutatzen. Eta Maltzagarako bidea egin dutenetik jende gutxiago dabilen arren, elgoibartar askorentzako, paseoa ibiltzeko lekurik politena izaten jarraitzen duela ere esango nuke nik.

Abendu hasieran, Sallobente erreka argazki batzuk bidali zizkidan inguruko bizilagun batek eta "txapapote" itxurako zerbait antzematen zen uraren gainean. Udaltzainei abisatu omen zien, eta hortik egun gutxitara egunkari batean azaldu zen notizia. Egunkariak zioenez, udaletxearen arabera, aurreko egunean lantegi batek istripuz isuritakoa zen eta egun horretan bertan garbitzen hastekoak ziren. Esan zidatenez, ez zen aurreko egunean izan, baina erreka zuten behintzat.

Orain dela gutxi (ia hilabete pasa ostean), bertako bizilagunarekin egin nuen topo eta zer esango eta erreka beltz jarraitzen zuela! Nolatan ba? A ez, barkatu, zertxobait garbiago omen zegoen... euri eta erreka urek eraman baitzuten "txapapotearen" parte errekan behera. Bejondeizuela! Eta, gainera, gezurretan ibili! Edo agian lantegi azpiko putzua garbitzearekin konformatuko ziren?

“Abenduan, Sallobente errekan ‘txapapote’ antzeko zerbait antzeman zuten bizilagunek”

Zoritxarrez, aste batzuk geroago ere, antzeko notizia bat jaso genuen. Beste isuri baten ondorioz, Deba ibaiko hainbat arrain hil ziren. Pozgarria da oso Deba ibaia bizidunez betetzen ari dela ikustea, baina zeharo tamalgarria horrelako arduragabekeria batek dena pikutara bidali dezakeela ikustea.

Zuk, lur azpiko urekin diharduzu lanean, Inma. Zure egunerokoan, hau al da errealitatea?



Inma Mugertza

Kaixo, Ander! Nik neuk ere sarriago jontzen dut orain Maltzaga aldera Sallobentera baino. Hala ere, hamaika joan-etorri egin izan nituen garai batean korrika Berdun arte, eta berriz beherantz, tipi-tapa. Amuarrainetan ere ibilia naiz txikitan anaia nagusiarekin, edo hobeto esanda, “amuarrai-saiakeran”. Zoritxarrez arrazoi duzu. Beste askotan bezala, lantegi batek istripuz isurketa bat izan zuen abenduaren hasieran, eta oraingoan Sallobente erreka tokatu zitzaion.

Abenduaren 27an beste isurketa bat izan zen Deba ibaian, bai. Hamarnaka amuarrain eta loina agertu ziren orduan tripaz gora Maltzagara doan bidegorriaren alboan. Zerbait jakin dugu geroago? Ez! Erantzulea nor izan da? Isunik ordaindu du? Neuririk hartu du berriz gerta ez dadin? Benetan ustekabea izan da? Garbiketa lanak lagundu ditu diruz? Ingurumen-eraso horrek ze eragin dauka herritarren poltsikoetan? Galdera hauek eta gehiago erantzunik gabe geratzen dira ia beti, jendaurrean gutxienez.

“Gero, hamarnaka amuarrain eta loina agertu ziren Deba ibaian, tripaz gora”

Lur azpiko uren errealitatea larriagoa dela esango nuke nik, Ander. Errazagoa da lurpean dauden urak kutsatzea, istripuz edo nahita, ez baita begi bistaz ikusten eta kutsaduraz ohartzea zailagoa delako. Gizakion ekintzek izugarizko presioa eragiten dute lur azpiko uretan. Iturri ugari daude hondatuta gizakion jardueren eta burugabekeriaren eraginez, eta, nire lanaren zatirik handiena guzti horri lotuta dago. Baina, ezin ahaztu gainazaleko urek eta lur azpiko urek bat egiten dutela. Baten ustelkeriak bestearena dakar, eta gure etorkizuna horren menpe dago. Konponbidea: heziketa zentzuduna, konpromiso serioa, isun gogorragoak...

ESKERTZA

JOSE FERNANDEZ DOMINGUEZ



2014ko urtarrilaren 19an hil zen, 84 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalaoa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriguren, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi biZikUat



MENDAKOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



■ GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

San Anton pilota txapelketaren gainbehera

Pena handia hartu dut aurten San Anton pilota txapelketarekin gertatu denarekin. Sasoi batean profesioaletara jauzi egiteko zorian zeuden pilotariak ikusteko eskaparate bikaina zen San Antonetako Torneoa. Eugi, Beloki, Olaizola anaiak, Berasaluze VII, Julen Retegi, Arretxe II... punta-puntan ibili diren pilotari ia denak pasatu dira ikastolako frontoitik. Berezi akorduan daukat Juan Martinez de Irujo estreinakoz frontoi batean ikusi nueneko eguna. Ijito plantako eta begirada zorrotzeko pilotari hark txundituta laga gintuen ikastolako frontoian geunden guztiok. Pilotaz asko jakin ez arren, argi ikusten zen urrutira helduko zela mutil hura, eta halaxe izan da alajaina! Plazer bat eta pribilegio bat izan zen profesionalekin debuta egin aurretik Elgoibarren jokatzeko ikustea. Azken urteetan dezentez maila apalagoko pilotariak ekartzen dituzte eta irudipena daukat frontoia ez dela lehen beste betetzen. Ez dakit horren arrazoia zein den. Ia datorren urtean antolatzaileak krisiari buelta eman eta txapelketak garai batean izan zuen distira berreskuratzeko gai diren. Pilotazaleok eskertuko diegu.

O.A. ©

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleaz datorren eskutitzik argitaratuko.

Izena **Luis Arrieta Barrenetxea**



Luis Arrieta Barrenetxea hil da, 1979. urtetik 1983ra Elgoibarko alkate izan zena. Francisco Franco Espainiako diktadorea hil ondorengo lehenengo udal hauteskundeetan eskuratu zuen alkatetza, EAJ alderditik. Martitzenean zendu zen Arrieta, 84 urte zituela, eta haren omenez, Elgoibarko Udalak herriko bandera jarri zuen udaletxeko balkoian, haga erdian, xingola beltzarekin. Politikaz gainera, enpresa munduan garrantzi handiko gizona izan zen Arrieta Elgoibarren, kooperatibismoan bereziki. Besteak beste, Eguzki lantegiko sortzaileetarikoa bat izan zen. 1954an Danobat kooperatiba sortu, eta, bi urtera sortu zuten Eguzki (Construcciones Mecanicas Eguzki), Estarta y Ecnarroitik eta Danobatetik zetozen hainbat langilek, tartean Luis Arrietak.

Enpresa **Argia, erreminta makinaren sektorean**

Itxaropenerako beste datu bat eman du AFMk, Espainiako Erreminta-Makina Egileen Elkarteak: erreminta makinaren eta fabrikazio teknologien sektoreak 2012. urtean baino %5,6 gehiago fakturatu zuen iaz. Igoera hori 2013. urtean lortutakoari baino gehiago 2012an lortu zen eskari kopuru handiaren ondorio dela jakinarazi zuen joan zen astean Jose Ignacio Torrecilla AFMko presidentek. 2013koaz balorazio "ona" egin du, eta 2014ra begira aitortu du itxaropentsu daudela: "Interpretatzeko urte zaila izan da 2013a. 2012a txukun itxi genuen, eskaera sorta politarekin, batez ere deformaziorako makinaren azpisektorean, eta horrek bidea eman digu 2013an gehiago fakturatzeko. Hala ere, 2013ko lehenengo seihilekoa eskasa izan zen [eskaerak %15ean gutxitu ziren] eta kosta egin zitzaigun eskaerak lotzea. Urtearen azkena dinamikoagoa izan zen, eta aho-zapore hobea utzi digu. 2014a eskaera gutxiagorekin hasi dugu, baina orain hilabete batzuk baino itxaropen handiagoarekin".

Asteko irudia **Lerun baserria eraitsi zuten**

Arrakala handia zuela ikusita eta eraikinaren horma zatiak 634 errepidera jausteko zegoen arriskuaren jakitun, Lerun baserria eraitsi beharra zegoela ohartarazi zien Elgoibarko Udalak jabeei. Ricardo Garate Hirigintza zinegotziaren arabera, etxe-jabeek ez zuten eragozpenik jarri, eta San Anton egunean eraitsi zuten baserria. Bota bitartean, errepideko errail bat itxita izan zuen Foru Aldundiak.



Gaur egingo dira

Elgoibarren odol ateratzeak

Gaur egingo dira odol ateratzeak, 18:30etik 20:30era, Odol Emaitzen Elkarteak anbulategi ondoan daukan lekuan. Odol premia dagoela ohartarazi dute beste behin elkartetik, eta herritar guztiak animatu dituzte odola ematera, bereziki gazteak.

Benicasimera bidaia

antolatu dute jubilatuentzat

Hamar egunerako bidaia izango da, bederlatzi gauko egonaldia. Maiatzaren 21ean irtengo dira Elgoibartik, eta Intur Orange hiru izarreko hotelean hartuko dute osatu han, pentsio osoan. Handik Peñiscolara eta Valentziara irteera bana egingo dituzte, inguru haietako ondare kulturala ikusteko, eta gainerako egunak Benicasimen bertan egingo dituzte. Jubilatuen Egoitzako bazkide direnek 425 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 450 euro. Ohe bakarreko logela nahi dutenek 150 euro gehiago ordaindu beharko dituzte.

Euskal Herriko mus

txapelketako kanporaketak Elgoibarren eta Mendaron

Bihar, urtarrilak 25, jokatuiko dira Euskal Herriko VI. Mus Txapelketako kanporaketak, Elgoibarren eta Mendaron, 16:00etatik aurrera. Elgoibarren, Lanbroa tabernan jokatuiko dira partidak, eta bikote bakoi-tzak hogeina euro ordaindu beharko ditu izena emateko. Izene-mateak kanporaketa hasi baino ordubete lehenago egin behar dira. Informazio gehiagorako: 669 671 680 (Josu). Mendaron, berriz, Aitz Beltz tabernan jokatuiko da kanporaketa, eta han ere bikote bakoi-tzak hogeina euro ordaindu beharko ditu izena emateko. Informazio gehiagorako: 665 733 015 (Joxe). Elgoibarko eta Mendaroko bikote irabazleak Orion otsailaren 14, 15 eta 16an jokatuiko den kanporaketarako sailkatuko dira.

JOSUNE GARDOKI

Lanbide zentroko teknikaria

2009an ireki zuen Eusko Jaurlaritzak Lanbide zentroa Elgoibarren. Euskal Enplegu Zerbitzua eskaintzen du, lan bila ari direnentzat bereziki, baina baita lanean egon arren, beste lan bat aurkitu nahi dutenentzat ere. Elgoibarko langabezia tasak gora egin du azken urteotan, eta une honetan %13,7koa da (azaroko datua da). Kopuru hori handitu den heinean, Lanbide zentroko teknikarien lan bolumenak ere gora egin du, eta horregatik Arregitoren auzoan dagoen Sartu-Zabaltzen zentroarekin partekatzen dituzte eginkizun batzuk. Lanbiderekin harremanetan jarri nahi duenak 943 023 845 telefonora deitu dezake.

Ainhoa Andonegi



“44 urtetik gorako emakumeak dira Elgoibarko langabe gehienak”

Zein zerbitzu eskaintzen ditu Lanbidek?

Enplegua eskaini eta eskatzen dutenentzako zerbitzua eskaintzen dugu. Hortaz, bi bezero mota ditu Lanbidek: batetik, enpresak, hau da, enplegua eskaintzen dutenak; eta bestetik, norbanakoak, langabetuak edota lanean daudenak, baina beste lan bat aurkitu nahi dutenak. Enpresei bitartekaritza zerbitzua eskaintzen diegu. Euren lanpostuak betetzeko pertsonarik egokienak bilatzen laguntzen diegu, kontratuen erregistroa egiten, praktiken kudeaketan... Norbanakoei, bestalde, lana bilatzeko edo lanez aldatzeko aholkularitza ematen diegu. Lanbiden izena emanda egoteak ez

du esan nahi langabezian zaudenik; eta jende askok ematen du izena lanez aldatzeko. Lehenik eta behin elkarrizketa bat egiten zaie, eta bakoitzaren beharren arabera orientazioa eta informazioa ematen diegu: Curriculumak osatzen laguntzen diegu, lana bilatzeko teknikak lantzen dira, lan-elkarrizketak nola kudeatu behar diren erakusten zaie, Lanbideren webgunea nola erabiltzen den edo Internetez lana nola bilatzen den... Norbanako bakoitzarentzat plan pertsonalizatua egiten da. Batzuk EPARA (Helduen Alfabetatze Eskola) bideratzen dira gaztelania ikasteko beharra dutelako edo eskola graduatua ateratzeko, beste batzuk KZgunera bidera-

tzen ditugu, informatika apur bat lantzeko... Horrez gain Dirusarrerak Bermatzeko Errentari buruzko dirulaguntzen kudeaketa egiten dugu.

Lanik gabe geratzen den pertsonak zein pauso eman behar ditu?

Lehenengo eta behin Lanbiden eman behar du izena, langabezian dagoela jakinarazteko. Datu batzuk bete behar dira, bakoitzaren perfila zein den jakiteko: zein ikasketa egin dituen, aurrez egindako lana zein den... Lanbiden dokumentu bat emango zaio, eta dokumentu horrekin joan beharko da SEPEra (Lehenengo INEM), langabezia prestazioa kobratzeko. Oso garrantzitsua da aurretiazko zita eskatzea SEPEko bulegoan. Izena eman ostean, hiru hiletik behin berri egin behar da, pertsona horrek lan bila jarraitzen duela egiaztatzeko. Lanbiden lehenengoz izena emateko bulegora joan behar da, baina berritza telefonoz edo Internetez ere egin daiteke.

Elgoibarko langabezia tasa %13,7koa da. Zein da Elgoibarko langabeen profila?

44 urtetik gorako emakumeak dira Elgoibarko langabe gehienak, baina 25-44 urte artekoen artean ere jende asko dago lanik gabe. Langabezia tasa %13,7koa bada ere, emakumeen langabezia tasa %15,9koa da, eta gizonezkoena %12koa. Guztira 736 langabe daude Elgoibarren: 353 gizonezko eta 383 emakumezko. Azken urteetan gora egin du Elgoibarko langabezia tasak; 2009an, bulegoa zabalduta genuenean, %11,9an zegoen. Egungo tasa nahiko altua den arren, Gipuzkoako eta EAEko langabezia tasen azpitik dago. Gipuzkoakoa %14,5 inguruan dabil, eta EAEkoa %16,6an.

Zenbat denboraz egoten dira batez beste langabezian?

Gure behatokiko lankideek emandako datuen arabera, EAEn ia bi urte egoten da langabe bat lanik gabe; 637 egunean dago batez bestekoa. Elgoibarko datua apur bat hobea da: 601 egunean dago langabezia aldia. Emakumeek denbora gehiago egiten dute langabezian; gizonezkoek errazago aurkitzen dute lana.

Zein izaten da langabezian geratzen denaren kezkarik nagusia?

Hona etortzen diren gehienek lehenengo sentsazioa beldurra izaten da. Bizi osoan lanean egon den pertsona bat galduta sentitzen da lanik gabe, erabat galduta. Burua galderaz betetzen zaie: 'zer egin behar dut?', 'nora jo behar dut?', 'zenbat egun daukat tramiteak egiteko?', 'zenbat denborarako daukat langabezia prestazioa?'... Galdera asko eta erantzun gutxi. Lanbidera etortzen diren arte kezka eta kezka izaten dituzte buruan. Gu saiatzen gara kezka gehienak argitzen eta euren galderak erantzuten, eta apur bat lasaitzen dira. Baina denbora aurrera joan ahala beste kezka bat nagusitzen da: 'noiz arte egongo naiz lanik gabe?'. Lehen desberdina zen, eta jende askok ondo hartzen zuen langabezia. Bi urte langabezian egotea ikasteko aprobeztatzeko zuten, eta bazekiten epealdi hori bukatzerako lana aurkituko zutela. Baina gaur egungo egoera oso desberdina da, orain ez dago lanik eta dagoena ez da lehen bezain ona. Lan baldintzak asko aldatu dira urte gutxian, eta horrek ere kezka sortzen du. Azken batean, alor ekonomikoak denok kezkatzen gaitu. Eta modu berean kezkatzen da ikasketak bukatu berri dituen gaztea. Unibertsitate ikasketak amaitu berri etortzen da jendea Lanbiden izena ematera, ondo prestatutako jendea, eta horiek ere lan munduan barneratzeko izugarriko zailtasunak dituzte. Horientzako praktikak bilatzen ahalegintzen gara, horiek ez baitute prestakuntza beharrik.

Sartu-Zabaltzen zentroa, Lanbideren osagarri

Sartu-Zabaltzen zentroa San Roken dago, Arregitorre kalean, hain zuzen ere. Lanbideren zentro laguntzailea da, eta Lanbideak laguntzen du diruz. Orientazioan eta prestakuntzan espezializatua da Sartu-Zabaltzen, eta horretarako bi orientatzaile ditu: Yolanda Urzelai eta Iñaki Lasa. Lanbideak eta Sartu-Zabaltzen zentroek elkarrekin egiten dute lan. Norbanakoak Lanbidera joaten dira izena ematera, eta orientazioan behar bereziak dituztenak handik bidertatzen dituzte Sartu-Zabaltzen zentrora.

Orientazioaren barruan enplegu zentroa dauka Sartu-Zabaltzenek.

Enplegu zentroa herritar ororentzat dago zabalik, eta bulego ordutegiaren barruan bere eskura izango du ordenagailua, lan edo ikastaroen eskaintzak kontsultatzeko, curriculumak Internetez zabaltzeko, lana bilatzeko webguneak erabiltzen ikasteko... Lanbideren webgunea erabiltzen ere irakasten diete, webgunea ondo erabiliz gero aukera handiak eskaintzen dituelako. Curriculumak egiten laguntzen diete beharra dutenei, eta enpresek eskatzen dituzten konpetentziak eskuratzen laguntzeko ikastaroak ere gomendatzen dizkiete.

Horrez gain, taldekako jardunaldiak ere egiten dituzte, esperientziak partekatu eta norbanakoak motibatuzko. Zentroko arduradunen arabera, motibazio falta handia dute gaur egun langabezian daudenek.

Orientazioaz gain, lanerako agentzia ere badu Sartu-Zabaltzen zentroak. Enpresen ikerketa egiten dute, lan eskaintzak aztertu eta horien berri ematen diete zentroan izena emanda daudenei. Formazioa eta esperientzia eskatzen dute lanpostu gehienetarako, eta konpetentzia horiek lortzen laguntzen du Sartu-Zabaltzen zentroak.

Lan mundua gertutik ezagutzen dute, lan eskaintzen berri daukate eta langabeek lan munduan barneratzen laguntzea da helburu nagusia.


9:00etatik 13:00etara egiten dute lan. Interesatuak 943 748 597 telefonora deitu dezakete.

“EAEn ia bi urtez egoten da langabe bat lanik gabe, 637 egunez, batez beste”

Zortzi proiektu aurkeztu dituzte Maalako parkea estaltzeko ideia lehiaketara



'Maalako euria, zura, aisia eta kultura' izeneko proiektua.



'3TF3' proiektua.



'Kolare' izeneko proiektua.



'Hegoak ebaki banizkio' proiektua.



'Caserío transparente' proiektua.



'Zaharrak, berri' proiektua.

Maalako parkea estaltzeko asmoa du Elgoibarko Udalak eta lehiaketara aurkeztu du proiektua. Elgoibarko sei arkitektoek aurkeztu dituzte lanak, zortzi egitasmo guztira. Aurkeztutako lanak Kultur Etxeko erakusketa gelan daude erakusgai eguazten arratsaldeaz geroztik, eta han egongo dira otsailaren 5a bitartean. Erakusketara joaten diren 18 urtez gorakoek proiektu gustukoena bozkatzeko aukera izango dute. Botoa emateko, nortasun agiria aurkeztu beharko da, pertsona bakoitzak boto bakarra ematen duela egiaztatzeko. Astelehenetik zapatara egongo da erakusketa zabalik, 18:30etik 20:30era.

Herriko ingeniari edo arkitektoa izatea, edo Elgoibarren lan egitea jarri zuen Elgoibarko Udalak baldintzatzen, lanak aurkezteko, eta zortzi lan batu dituzte. Proiektua aukeratzeko aintzat hartuko dituzten irizpideak ere zerrendatu zituzten, eta irizpide horietako bakoitzak zenbateko balioa izango duen ere bai: proposamenaren prezioa (irizpide honi puntuazio orokorraren %30 emango zaio), herritarren botoak (%20), ingurura nola egokitzen den (%20), egitura mantentzeak zer kostu suposatuko duen gerora begira (%15), eta gaur egun parkeari ematen zaizkion erabileretara nola egokitzen den (%15). Proiektu irabazlearen egileak proiektua idazteko enkargua jasoko du saritzat. Bigarren proiektu onena, berriz, 3.000 euroekin sarituko dute, eta hirugarren proiektu onena, 2.000 euroekin.

Rikardo Garate Elgoibarko Udaleko Hirigintza zinegotziak aurreratu du nahiko luketela udarako estalpea prest egotea. Hori hala izan dadin, otsaila bukaerarako esleituko dituzte lanak, eta maiatzean obrak hasteko moduan izango dira, Garateren esanetan.



'Plic' proiektua.



'Txertoa' proiektua.

PATXI BAZTARRIKA

EUSKO JAURLARITZAKO HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEA

Euskara. Errealitatea eta erronkak izenburuko hitzaldia eskaini zuen joan zen astean Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza politikarako sailburuordeak (Ataun, Gipuzkoa, 1958), Elgoibarren. Herri Eskolak eta Kalamua guraso elkarteak gonbidatuta etorri zen Baztarrika, eta luze eta zabal jardun zuen euskararen iraganaz, orainaz, eta etorkizunaz. Hitzaldia aurretik erantzun zien BARRENEK galderei.



“Euskararen bizi-indarra daukagu jokoan, eta horretarako, hizkuntz-kontzientzia izatea da klabea”

Euskararen ezagutzan pauso handiak eman dira. Gure gazteen artean nekez egongo da euskaraz ez dakienik, baina, aldiz, euskararen kale neurketek erakusten dute erabilerari dagokionean asko du gula hobetzeko. Nola bideratu genezake hori?

Ez da erantzun bakarreko galdera, baina gauza batzuk finkatzea komeni da. Erabilerak gora egin du, batez ere esparru formalean; alegia, zerbitzu publikoetan. Oso-osoa apal egin du gora lagunartean

eta laneko harremanetan, eta ez du gora egiten esparrurik intimoenan: etxean. Oro har, beraz, erabilerak gora egin du, baina modu desberdinean, bai adin-taldeetan eta baita ere esparru funtzionaletan. Badira faktore batzuk erabileran, oro har, eragiten dutenak: hiztunaren hizkuntz-gaitasun erlatibo bat, hizkuntza erabiltzeko daukagun gaitasuna. Eta erraztasun horretan eragiten dute etxeko hizkuntzak edo ama hizkuntzak, eta ingurune soziolinguisti-

koak, alegia zure eguneroko sare sozialak. Faktore horietako batzuek oso modu berezian eragiten dute kaleko erabileran. Nik uste oso modu erabakigarrian eragiten duela, adibidez, ingurune soziolinguistikoak eta hiztunen dentsitateak. Azken hori esaten dudanean esan nahi dut lau euskaldun eta erdaldun bat tartean direnean gaztelaniara jotzen dugula sarri. Beraz, hiztunen trinkotasun horrek oso modu zuzenean eragiten du kaleko erabileran. Duela hogeita bost urte ez bezala, gaur, zorionez, ez dago euskaldun elebakarrik, eta beraz, trinkotasunaren faktoreak oso modu garbian eragiten du. Gaur, euskaldunen artean, gehiago dira gaztelaniaz euskaraz baino hobeto moldatzen direnak, besteak beste etxeko hizkuntzagatik, eta nola euskara hazten ari den eta euskaraz dakitenak gero eta gehiago diren –nagusiki hezkuntza sistemari esker, eta baita ere, modu apalagoan, euskaltegiei esker–, bigarren hizkuntza gisa eskuratu du euskara jendeak. Eta, jakina, halakoetan, esparru ez formaletan, norberaren lehenengo hizkuntzak aurre hartzen dio beti bigarrenari. Beraz, faktore horiek guztiek egiten dute kaleko erabilera ez joatea goraka askok nahiko genukeen neurrian.

Eta horren aurrean zer?

Aipatu ditudan faktore horietan eragiteaz gain, gizarte bizitzan euskara erabiltzeko gero eta aukera gehiago sortu behar ditugu. Baina aukerak sortzea bakarrik ez da nahikoa. Aukera horiek baliatu egin behar dira, eta gaur ere, aitortu behar dugu askotan ez ditugula erabiltzen euskara erabiltzeko eskura ditugun aukerak. Beraz, lan egin behar dugu euskara erabiltzeko aukerak gehiago izan daitezen, horretarako, hizkuntza politika eginez. Eta horren ondoan, euskara eta eskal hiztunen komunitatea gero eta erakargarriago izateko lan egin behar dugu. Euskaldunontzat erakargarri den heinean joango baita erakargarri izaten gaur oraindik euskaldun ez direnentzat.

Diru-laguntzak banatzeko irizpideetan egin dituzuen mugimenduek erakusten dute aisialdiari berebiziko garrantzia eman diozuela aurrean. Ama hizkuntzak duen garrantziaz ohartarazi diguzu orain, eta zalantza sortu zait. Mintzapraktika proiektuetarako diru gutxiago dago aurrean praktikan. Haurren erreferenteak nagusiak izanda, kosta egiten da ulertzea zergatik ez den hor diru gehiago inbertitzen. Izan ere, adin tarte horretan 12 urtez azpikoetan baino txikiagoa da eskaintza.

Ez dago diru gutxiago, hori baita gure beste lehenetsua. Horretarako, Topagunearekin hitzarmena egiten dugu, Topaguneak berak hori bultzatu dezan. Bi planotan ematen dugu dirua: bai Topaguneari eta baita horrelako programak bultzatuko dituzten udalei ere. Dena den, esan duzun guztia ez da identifikatzen diru-laguntzekin. Euskara erabiltzeko, lehenengo jakin egin behar da. Hizkuntza gaitasuna, baina, ez da bakarrik eta nagusiki eskolan eskuratzen. Euskaraz natural-natural jarduteko adierazpide hori izateko, eskola ezinbestekoa da, baina oso garrantzitsua da familia eta inguruko hizkuntza. Hiru elementu horiek uztartuta doazen neurrian, hizkuntza gaitasuna handiagoa da. Zutabe horietako batek huts egiten duenean,

beste zutabe horiek konpentsatu dezakete, baina biren galera eskolak ezin du gainditu, eta agian, kasu askotan, eman dezakeena baino gehiago eskatzen ari gatazka eskolari. Beraz, gurasook eta jende helduak jakin behar dugu –eta gero egokiago iruditzen zaiguna egingo dugu gure hizkuntza portaeretan, askatasun osoz– gure hizkuntz portaerek zer nolako eragina duten, baita ere seme-alaben, gazteen eta haurren hizkuntz portaeretan. Jakin behar dugu gure hizkuntz portaera A eredukoa bada, D eredura bidaltzen dugun haurrak ez duela zertan gero euskaraz egin. Gure erantzukizunaz jabetu behar gara. Eta ez naiz inori errua botatzen ari. Horren pedagogia egitea badelako baita ere hizkuntza politika publikoaren egitekoa.

Euskara hizkuntza askorekin bizi da gaur, eta askotan mehatxutzat ere hartzen da hori. Zein harreman izan behar luke euskarak gainerrako hizkuntzekin?

Euskararen etorkizuna planteatu behar da nagusiki klabe hauetan.

Bat: hizkuntza aukera berdintasuna eta hizkuntza askatasuna egiazkoak izateko nahitaezkoa da gure gizartean euskara sendotzea. Bi: hizkuntzen harremana. Hizkuntza berdintasuna eta hizkuntza askatasuna aipatzen baditugu, hizkuntza integrazioaz ari gara hizketan, eleaniztasunaz alegia. Hizkuntzen arteko harremanak izan behar du osagarritasunean eta baturan oinarritutako harremana, eta ez ordezkapenean oinarritutakoa. Oso paradigma zaharmindua da elebakartasun indibidual eta sozialarena. Gu joan behar gara etorkizuna are eta eleaniztazko izatera, eleaniztasun hori aberatsa baita. Kontua da osagarritasunaren eta

baturaren klabeetan egitea hor lekua euskarari, ez hizkuntzen gatazken arteko klabeetan.

Kontua ez da, beraz, euskara ala erdara, euskara eta erdara baizik.

Bai. Gaur, esaterako, bi hizkuntza ofizial dauzkagu hemen, baina bi hizkuntza horien arteko harreman soziala desorekatua da, euskararen kalterakoa. Desoreka hori gainditzera joan behar da, baina ez gaztelania lekuri gabe uzteko ametssezko helburuarekin. Eta ez bakarrik hori ameskeria litzatekeelako. Bizikidetzat orekatu bat adostu behar da, azken batean herritarren arteko berdinkidetasunean oinarritutako konbentzientzia bat adostea delako. Horrek, jakina, euskarak gaur duena baino arnasa gehiago izatea eskatzen du, hizkuntza bat bizi izango bada, ohikotasunez, naturaltasunez, erabilia den hizkuntza izatea behar duelako.

Euskara normalizatzeraren beharrean bizirautea kondenatua dago?

Euskadiko Autonomiaren Erkidegoko ikuspuntutik begiratuta, esan dezaket euskararen biziraupena bi-hiru belaunalditara begira –hortik aurrera hitz egitea atrebentzia handiegia litzatekeelako– ez dagoela arriskuan, baina bai euskararen bizi-indarra. Hori da benetan jokoan daukaguna. Etxepareren *euskara, jalgi hadi plazara* haren ondoan, eta lelo hori ikurtzat hartuta, lan asko egin du gizarte honek, baina gaur, *euskara, hator etxera* eta *euskara, hator lagun artera* esatea tokatzen zaigu. Guri gertatzen zaigu zorionez euskara gero eta he-

“Bi hizkuntzen arteko desoreka gainditzera joan behar da, baina ez gaztelania lekuri gabe uzteko”

rritar gehiagoren bigarren hizkuntza dela, baina badugula arriskua gaur lehen hizkuntzatat dutenetako batzuen kasuan, bigarren hizkuntza bihurtzeko. Eta hori oso da arrisksua. Bigarren mailako hizkuntza bezala biziraute hori ez da guk nahi duguna. Beste hizkuntzen ondoan nahi dugu euskara. Izan dadila beste hizkuntzak bezalaxe, zenbait jenderengan, zenbait funtziotan, zenbait gune eta tokitan, hizkuntza nagusia. Joku hori, alegia hizkuntza bakoitzak esparru horiek izatea eta herritarren gehiengo zabal batek osasunbide hori onartzea, klabea izango litzateke euskararentzat eta bizikidetzaz sozialerako.

Bistan da gaur oraindik desoreka dagoela eta gaztelaniarekiko harreran asimetriko horretan euskara galtzen irteten dela. Zuk, hala ere, euskarari tokia egiten jarraitzeko “malgutasuna” behar dela babestu duzu beti. Malgutasun hori ez al da arrisksuegia batzuetan? Ez al da lausoegia “malgutasunetik” hizkuntza handiagoen aurrean amore ematerako marra?

Hizkuntza biziberritzeko prozesuan, laburtu behar diren laburtu behar diren faktore giltzariak zeintzuk diren aipatu beharko banu, hiru aipatuko nituzke: lege estatusa, hizkuntza-politika publiko aktibo eta konprometitu, eta herritarren atxikimendua. Hirurak beharrezkoak. Hiru faktore horietan esan beharko banu zein den erabakigarriena eta nagusietan nagusi hirugarrena aipatuko nuke: herritarren euskarekiko identifikazioak adostasun sozial eta politikoa izatea oinarrian, hori gabe ezinezkoa baita herritarren atxikimendu hori etengabe eta gero eta gehiago elikatzea. Eta herritarren atxikimenduan eta adostasun politiko eta sozialean oinarritutako hizkuntza politika eta hizkuntza biziberritzeko prozesua dira garantiarik handiena atzerabueltarik gabe beti aurrerantz joateko. Nahiago nuke gauzek abiada handiagoa eramatea, baina gure gizartean badira daramana baino gutxiago eramatea nahi dutenak ere, eta horregatik, sekula atzera ez egitea baldintza izango duen puntua topatu behar da hemen. Malgutasuna ez da atzera egitea, aurrera egiteko baldintza baizik.

Euskararen erabilera normalizatzeko jaio zen Euskararen Legeak 30 urte bete ditu. Badira agortuta dagoela uste dutenak ere. Zer diozu?

Badu hazteko aukerarik?

Abantaila handi bat dauka Euskararen Legeak: adostasun zabal eta handi baten gainean egindakoa dela eta hori ez dago alferrik galtzerik. Euskararen Legeak eman dituen aukerei esker, politika sustatzaileria egin ahal izan da, eta zorionez, gizarte ekimenetik sortu diren mugimenduei ere babesa eta laguntza eman ahal izan zaie, lege horretan oinarritutako sustapen politikak egin ahal izan direlako. Badu ibilbiderik Euskararen Legeak? Nire ustez, handia. Zer da gaur euskal hiztunok edo euskal herritarrok euskara bultzatzeko egin nahiko genukeena eta Euskararen Legeak eragozten diguna? Euskararen Legeak ematen dizkigun aukera guztiak baliatzera ere ez gara gaur oraindik iristen. Euskararen Legean herritarren hizkuntza eskubideak aitortuta daude, baina gaur oraindik esparru askotan zailtasun handiak ditugu aitortuta dauzkagun eskubide

horiek kasu guztietan normaltasunez errespetatuak izan daitezen. Beraz, arazoa ez daukagu eskubide horiek aitortzean –munduko hizkuntza legerian modu aurreratuenean egiten da hori–. Problema da hor bertan eginda dauzkagun aurreikuspenak betetzeko zailtasunak daukagula, hau oso gorabehera konplexua delako.

Zuk zeuk esan duzu egiteko aukera daukagun guztietan ez dugula egiten, baina eskubide hori errespetatzen ez zaigun lekuak ere badira, eta Arartekoak ere jaso du bere txostenean. Kon-

ponbiderik ikusten diozu?

Bai, jakina, badaude hutsuneak, eta zalantzarik gabe, gure erantzukizuna da hori. Hizkuntza eskubidearen aitortza berealdiko aurrerapausoa da, bizikidetzaz berdinkide bat izateko, eta hori hemen 1982an egin zen. Herritarrei eskubideak aitortu zitzaizkien eta herri-aginteei obligazioak ezarri, eskubide horiek egiazki bete ahal daitezen. Hori, baina, modu progresibo batean bakarrik bermatu daiteke, eta horrela egitea dago aurreikusita gure legerian, ezin baita pentsatu lege bat onartuagatik aitortuta ditugun neurriko hizkuntza eskubideak goizetik gauera bermatuko zaizkigunik. Adibidez: irakaskuntza euskaraz jasotzeko eskubidea aitortu zen,

“Zer da euskaldunok egin nahiko genukeena eta Euskararen Legeak eragozten diguna?”





baina aitortu zen momentuan, gure hezkuntza sistema publikoan irakasleen %7 bakarrik ziren gai euskaraz irakasteko. Momentu horretan inork pentsatu izan balu eskubide hori goizetik gauera bermatuko zitzagula, oker zebilen. Baina aitortu zen eskubide hori, eta horri esker, irakasleak euskalduntzeko berealdiko planak eta baliabideak jarri dira, eta gaur da eguna hezkuntza sistemako irakaslen %80tik gora gai direna irakaskuntza euskaraz emateko. Progresibotasun bat dago beraz.

Kontua da astiroegi ez ote doan dena.

Neuk ere nahi nuke bizkorrago joatea. Garbi dago progresibotasun hori ezin dela aitzaki izan eskuak gurutzatuta gelditzeko. Harian-harian hizkuntza eskubide horiek bermatzen joan behar dugu. Inportanteak dira, beraz, Arartekoaren txostenak. Eskubideei garrantzia ematearen aldeko jarrera da gurea, eta jarrera hori daukagulako sortu zen, hain zuzen, Elebide: batetik, herritarrei aukera emateko eskubide urraketak salatzeke, eta bestetik, herritarrei adierazteko legeak babesten dituela. Baina ez dezagun perspektiba gal: ez goaz atzera. Aurrera goaz, hobera goaz. Egia da, hala ere, hobeto goazelako ezin garela autoatseginkeria antzuan erori. Garen baino eragin-korrago izaten jarraitu behar dugu.

Eta horretarako zer?

Euskal administrazio publikoetako bosgarren euskararen erabilera planak onartu dira batzuetan, eta beste batzuetan onartzen ari dira. Jaurilaritzak, adibidez, onartu du datozen bost urteetarako euskararen erabilera plana, helburu bikoitza daukana: herritarrei modu eraginkorrean bermatzea hizkuntza eskubideak Jaurilaritzarekiko harremanean, eta bestetik, euskara, gero eta neurri handiagoan, lan-hizkuntza izatea Jaurilaritzaren zerbitzuetan. Osakidetza ere onartu du bere bigarren erabilera plana, eta hor ere aipatu ditudan bi helburu horiek markatzen dira, azpimarratuz bereziki lehenengoa, hor pauso handiagoak daudelako eman beharrean. Eta aurtengo urtean onartuko da Ertzaintzarena. Horrelako tresnak jartzen ditugu

martxan pausoak emateko, oso kontziente izanda zer hobetua badaukagula.

Euskara elkarte da gurea. 50 urte bete ditugu, eta zer hobetua badugun arren, gauza batzuetan asmatu dugulakoan gaude. Nola baloratzen duzu euskara elkarten lana? Zein egiteko ikusten diezu?

Euskara elkarteak egindako ekarpena oso-oso garrantzi handikoa izan da. Lehen aipatu dut herritarren atxikimenduaren faktorea, adostasunaz elikatzen den hori. Bada, atxikimendu hori proiektatzen elementu giltzarri izan dira euskara elkarteak. Euskarak aparteko bultzada behar zuenean sortu ziren, eta ilusio sortzaile izan dira. Eta oro har lan bikaina egin dute, eta mimatu behar dira. Zer erronka dituzten etorkizunera begira? Ni nagoen lekutik ez naiz pertsonarik egokiena horri erantzuteko, baina nire ustez honakoak dira erronka nagusiak: euskararen erabilerearen aldeko ilusio berritua sortzea, euskal hiztunak euskal hiztun bezala aktibatzea... Euskararen bizi-indarra da jokoan daukaguna, eta horretarako, hizkuntz kontzientzia izatea da klabea. Bada, hizkuntz kontzientzia hori pizten eta elikatzen euskara elkarteek egiteko handia daukate, eta guzti horretarako iruditzen zait klabea dela gazteentzako eskaintza erakargarria izatea. Horretarako jakin behar da euskal gizartearen pluraltasunaren hizkuntza izanez bakarrik izango dela euskara sasoikoa eta indartsua. Pluraltasun hori proiektatzen gauza positiboa litzateke euskara elkarten eraginkortasunerako.

Zailtasun handiak dituzte euskara elkarte askok, eta bidean asko galdu dira. Ixtea beste aukerarik ez dute izan. Hizkuntza politikarako sailburuorde zara. Zer daukazu esateko?

Inork uste badu norbaitek elkarte izateari uzten diola beste batengatik, oker dabil. Aztertu beharko liriteke kasuak, baina euskara elkarteek eta beren aktibitateek, euskalgintza sozialak oro har, herri-agin-teen babesa eta bultzada izan dute eta izaten jarraituko dute.

KOLORETAN GOZATZEN

1981ean sortu zuten Egur Arte Tailerra. Hasieran grabatuak egiten zituzten egurrean, baina gaur egun margo eskola da; gazte, nagusi zein umeentzako margo eskola. 21 heldu eta 53 ume joaten dira margo eskoletara astero, Paula Heras irakaslearen aholkuak jarraituz, irudimenari bide ematera.



Ainhoa Andonegi

Paula Heras (irakaslea), Maribel del Rivero, Mariaje Azpiazu, Tere De la Cruz eta Jose Luis Ruiz de Escudero.

Kirola egiten dute batzuek erlaxatzeko, pasiatzera joaten dira beste batzuk, eta badira telebista aurrean deskantsua hartzea gustuko dutenak ere. Gaur, ordea, denbora libre margoari eskaintzen dioten talde batekin batu gara, Zaharren Biltokian. Erakusketa gela bilakatu dute jantokia, eta hantxe jarri dituzte ikusgai Egur Arte Eskolan eginiko artelanak. Nagusien taldean 21 ikasle ditu Paula Heras irakaslea, eta horietako lauren esperientzia jaso dugu.

Tere De la Cruz, Maribel Del Rivero, Jose Luis Ruiz De Escudero eta Mariaje Azpiazu Egur Arte Tailerrera joaten dira margotzera eta eguneko jardunaz deskonektatzera. Nork bere teknika eta estiloa ditu, baina denak bat datoz gauza batean: margotzea denbora libre betetzeko modurik onena dela uste dute. Seme-alabak nagusitu zirenean hasi zen Tere margo eskoletara joaten: "Ez neukan beste zaletasunik, eta margotzea gustatzen zitzaidanez, eskolara joaten hasi nintzen". Hamabi bat urte izango dira margotzen hasi zela, eta koadroak non gorde ere ez dakiela aitortu du. Senide eta lagunei oparitu dizkie asko, etxean ere zintzilaku ditu beste batzuk, baina beste asko gordeta dauzka. Maribel ere aspaldi hasi zen margo eskolara joaten. Betidanik gustatu izan zaio pintura, eta bere

gauzetaz pentsatzeko aukera eskaintzen dio: "Erlaxatu egiten nau". Denetik margotzen du. Argazkiak ateratzen ditu lehenik, eta gero kopia egiten du. Alabari printzesak asko gustatzen zaizkiola-eta, azken koadroan printzesa bat marraztu du. Mariaje ileapaintzailea, da Zaharren Biltokian bertan. Eskuekin abilezia berezia du lanerako. 14 urterekin hasi zen margotzen, eta ordutik, libre daukan denboraren zatirik handiena eskaintzen dio pinturari. Erretratuak egitea gustatzen zaio bereziki, pertsonen aurpegiak marraztea. Bere osabaren erretratu bat eta bere seme-alaben koadro bat erakutsi dizkigu. Enkarguzko lanen bat edo beste ere egin izan du, baina afizioz margotzen du, batez ere. Jose Luis 2010ean sartu zen arte tailerrean. Inprentan lan egindakoa da, eta jubilatua zenean, denbora libre gehiegi zeukala konturatu zen. Zaharren Biltokiko zuzendaritzan sartu zen lehenik, eta Egur arte tailerrean eman zuen izena ondoren. "Pozik" dabilela aitortu du.

Zaharren Biltokia kulturagune bilakatu dute hilabete batzuetan, eta orain bakoitzak bere lanak batu eta hormak hutsik utziko dituzte berriro. Hala ere, Zaharren Biltokiko zuzendaritzakoek jakinarazi dute badutela biltokiari kulturagune itxura emateko asmoa, eta aurreantzean beste erakusketaren bat antolatuko dutela.



“Artea eta kultura herritarren eskura jarri behar direla uste dut”

Nola hasi zinen Egur Arte Tailerrean margo eskolak ematen?

Orain dela zazpi bat urte iritsi nintzen Valladolidetik Elgoibarrera. Baserrian hasi nintzen lanean, eta nire amaginarrebaren lagun bati ere laguntzen nion. Hark bazekien Arte Ederrak ikasi nituela eta berak esan zidan Egur Arte Tailerrean margo irakaslea behar zutela. Lanposturako aurkeztu nintzen eta hartu egin niduten. Sei-zazpi urte izango dira lanean hasi nintzela. Gaur egun baserriko lana eta margo irakasle lana uztartzen ditut.

Ikasle asko dituzu?

Hasieran nagusien taldea zegoen soilik. Taldeko batek esan zidan bere auzokide batek bazeukala ume bat, margotzen ikasi nahi zuena. Etortzeko esan nion, eta denbora luzez egon nintzen ume bakarri margotzen erakusten. Poliki-poliki hasi ziren ume gehiago etortzen. Gaur egun 21 nagusi eta 53 ume etortzen dira. Lehen bi irakasle geunden: Nerea

Aranburuk esmaltea irakasten zuen, eta nik margoa. Tamalez, iaz hil egin zen Nerea, eta orain bakarrik nago. Hala ere, esmalte eskolara joaten ziren ikasleek jarraitzen dute euren kabuz esmalte lanak egiten.

Umeei eta nagusiei modu berean irakasten al zaie margotzen?

Ez, oso desberdina da nagusiei edo umeei irakastea. Nagusiek badute oinarri bat, eta haiek pintura teknikak ikastera etortzen dira. Baina umeekin ezin da horrela lan egin. Orain arte saiatu izan naiz eskolak ematen, baina aurten metodologia aldatu dut. 3tik 12 urtera arteko umeak etortzen dira, eta adin tarte handia den arren, denak nahasten ditut. Pintura klasea baino gehiago, sormena lantzeko gune bat da gure eskola. Bakoitzak librean margotzen du, nahi duena eta nahi duen moduan. Esperientziak erakutsi dit metodologia hobea dela.

Marratzen ikasi egin daiteke ala berezko zerbaite eduki behar da?

Paula Heras Egur Arte Tailerreko irakaslea

Suposatzen da pertsona guztiek dakitela marrazten, bakoitzak bere erara, baina denek dakitela barruan dutena paperera ateratzen. Hori erakusten duten ikerketak ere badaude. Beste gauza bat da errealitatea paperean irudikatzea. Hori zailagoa da, eta egia da batzuk erraztasun handiagoa dutela, baina praktikatu, dena ikasi daiteke. Ez ordea haurtzaroan. Umeek nahi izaten dute irudiak bere horretan kopiazea, eta ez bazaie ondo irteten haserretu egiten dira; apur bat frustrantea da. Horregatik uzten diet orain librean, eta askatasunez lantzen dugu pintura. Dena dago ondo, eta denak balio du. Hasieran apur bat galduta sentitzen ziren, ez zuten jakiten zer margotu, baina orain gustura dabilta. Mahai batean guztien eskura jartzen ditugu margoak eta *collage*-ak egiteko materiala, eta, horrez gain, ume bakoitzak bere txokoa dauka margotzeko. Lapitza eta borragoma debekatuta daude, bestela umeek dena borratzen dute, gaizki dagoela uste dutelako eta hori ez da egokia. Elkarri kopiatzen ere ez diet lagatzen, eta besteen irudiei buruzko komentarioren ere ezin dute egin; errespetua erakutsi behar diote elkarri. Arau gutxi batzuk ditugu, baina bestela dena librea da. Umeek badute irudimena eta utzi egin behar zaie. Adinean gora egin ahala gehiago kostatzen zaie sormena lantzea, aurreiritzi asko dituztelako.

Elgoibarren badago margorako zaletasunik?

Gero eta gehiago. Nerea Aranburuk sarri esaten zuen Elgoibar herri musikaria dela, eta ez hainbeste herri artistikoa. Ume gehienak musika eskolara joaten dira, eta ez hainbeste marraztera. Hala ere, pozik nago, azken urteetan ume gehiago animatu dira-eta. Aurtentzen jendea kanpoan utzi



behar izan dut, ez daukagulako denentzako lekurik. Gure arazoa lokala da. Aita Agirre eskolako lokal batean gaude, baina eraikina ez dago baldintza onean. Lokala zaharra dago, eta txiki geratu zaigu. Lokalez aldatuko gaituztela uste dut, baina ez dakit noiz izango den. Lokal egokia eta herritarren eskura izango bagenu, denentzako lekua izango genuke. Artea eta kultura herritarren eskura jarri behar direla uste dut.

Gustatzen zaie ikasleei euren lanak erakustea?

Bai, urtero egiten dugu erakusketa bat kultur etxean, eta nagusien taldekoek zaharren biltokian jarri dituzte euren lanak ikusgai. Aire libreko marrazketa lehiaketa ere antolatu genuen Trinitate jaietan, margoa kalera ateratzeko, baina nire ikasleek ez zuten parte hartu. Aitor Etxeberria Mendaroko margolariak asko lagundu zidan lehiaketa antolatzen, eta eskerrak eman nahi dizkiot, eta Kultura Sailak ere asko laguntzen digu Egur arte tailerra aurrera eramaten.



Ego-Toki elkartearen aurrean zebrabidea behar da: "Ego-Toki elkartearen aurrean zebrabidea zegoen lehen, baina Pedro Migel Urruzuno kalea berri zutenean zebrabidea kendu egin zuten. Oinezkoek lehenetsuna izan beharko lukete gune horretan. Loritoneko aldapa igo eta San Roke auzorantz joateko jende askok gurutzatzen du bidea leku horretan, eta askotan auto gidariak ez dira gelditzen".



Elgoibarren irudia gehiago zaindu beharko litzateke: "Elgoibarren irudia hobetzea ez da asko kostatzen; askotan, ideiak behar izaten dira. Elgoibarko sarreretakoa bat asko edertu liteke, nire ustez, Santa Ana kaleko lehenbiziko etxearen horma margotuta. Herri askotan ikusten dira horma margotu eder askoak, eta Elgoibarko Udalak eraikin horretan zerbait egin deza keela iruditzen zait".



Maalako aparkalekua erabili ezinda egon zen ostegunetik martitzenera arte: "Aparkatzeko arazo larria daukagu Elgoibarren, baina badirudi batzuei ez zaiela inporta. Ostegunetik asteartera arte Maalako aparkalekua erabili ezinda egon da, karpa jarri zutelako. Hori gutxi ez balitz, barixakuan Maalako zubia itxi egin zuten. Ez al da gehiegizkoa izan? Kultur ekintzak antolatzeko erraztasunak eman behar direla badakit, baina oraingoan erraztasun handiegia eman direla iruditzen zait. Karpa kendu zutenean, gianera, lur guztia zikin-zikin geratu zen".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112

ESKERTZA



GLORIA SUAREZ ETXEBERRIA

2014ko urtarrilaren 22an hil zen, 99 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



**BARTOLOME AIZPITARRE
 ASTIGARRAGA**

2014ko urtarrilaren 13an hil zen, 80 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Partida estuak jokatu zituzten San Anton pilota txapelketan

Aurten egun bakarrean jokatu da txapelketa

Murrizketen eraginez, egun bakarrean jokatu dute aurten San Anton pilota txapelketa. Aurreko edizioetan baino ikusle gutxiago batu ziren Ikastolako frontoiko harmailetan, baina kantxan maila handia erakutsi zuten pilotariek. Lehenengo partidaren Elgoibarko eta Mendaroko pilotariek parte hartu zuten eta Kepa eta Lizarralde 22-17 hartu zituzten mendean Agirrebeña eta Txurruka. Bigarren partidaren, berriz, Atxotegi eta Urruzolak 22-19 irabazi zieten Santxo eta Murgiondok osatutako bikoteari. Barixakuko ekin-tzak ez ziren pilotarekin amaitu.



Lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Debabarrena areto futbol klubak eta Eskoriatza kirol elkarteak

CD Debabarrena areto futbol taldeak eta Eskoriatzako kirol elkarteak lankidetzarako hitzarmena sinatu dute. Debabarrenak Bigarren B mailan du bere lehen taldea, eta Eskoriatzako talde nagusiak Euskal Ligan jokatzen du. Gipuzkoako areto futbolaren alde lan egiteko batu dira bi klubak, eta batez ere, oinarrizko mailetan egongo dute lanketa.



CD Elgoibarren Gabonetako otarrak badu jabea

CD Elgoibarrek Gabonetan zozketatutako otarrak badu jabea: Imanol Bastida mendararra.



EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 0 – Oiartzun 0 (3. maila)
 Elgoibar 2 – Zumaiako 3 (Erreg.)
 Bizkerre 1 – Elgoibar 0 (Neskak)
 Zumaiako 0 – Elgoibar 2 (Jub.)
 Elgoibar 3 – Zumaiako 3 (Kad. A)
 Amaiak Bat 4 – Elgoibar 1 (Inf. Txiki)

ARETO FUTBOLA

San Juan 0 – Concepto Egile Elg. 2 (2B)
 Aldapeta 3 – King-Kong Elg. 4 (Jub.)

ESKUBALOIA

Sporting La Rioja 25 – Lauko Elg. 18 (Sen. neska.)
 Arrasate 27 – Alcorta Elg. 27 (Sen. mut.)
 Eibar 23 – Gabaz Elg. 23 (Sen. mut.)
 Astigarraga Elg. 18 – Zuazo 25 (Jub. neska.)
 Bidasoa 21 – Beristain Elg. 29 (Jub. mut.)
 Tecnifuelle Elg. 14 – Zuazo 23 (Kad. neska.)
 Egia 31 – Pneumax Elg. 13 (Kad. mut.)
 Eibar 25 – Txarriduna Elg. 24 (Kad. mut.)
 Cometel Elg. 35 – Aiala 15 (Inf. neska.)
 Zarautz 18 – Deca Elg. 24 (Inf. mut.)
 Aterpe Elg. 19 – Aiala Zarautz 19 (Inf. neska.)
 Pulpo 15 – Bankoa Elg. 24 (Inf. mut.)
 Ikus Elg. 27 – Aiala Zarautz 17 (Inf. neska.)

PILOTA

San Anton Txapelketa

Agirrebeña-Txurruka 17 – Kepa-Lizarralde 22 (Nag.)
 Santxo-Murgiondo 18 – Atxotegi-Urruzola 22 (Nag.)

AGENDA

FUTBOLA (Minxetan)

Zapatua, 25
 10:00 Elgoibar – Anaitasuna (Inf. Txiki)
 12:00 Elgoibar – Zarautz (Kad. B)
 15:30 Elgoibar – Lagun Onak (Inf.)
 17:00 Elgoibar – Beasain (Kad.)

Domeka, 26

11:00 Elgoibar – Eibar (Aleb. A)
 11:00 Elgoibar – Mutriku (Aleb. B)
 12:30 Elgoibar – Hernani (Nesk.)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 26

12:30 Concepto Egile Elg. – Jaca (2B)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 25

9:45 Bankoa Elg. – Aloña Mendi (Inf. mut.)
 11:00 Deca Elg. – Pulpo (Inf. mut.)
 12:30 Beristain Elg. – Hondarribi (Jub. mut.)
 18:00 Alcorta Elg. – Trapagaran (Sen. mut.)
 19:45 Lauko Elg. – Lanzarote (Sen. neska.)

Domeka, 26

10:30 Gabaz Elg. – Aloña Mendi (Sen. mut.)

PILOTA

Barixakua, 24

21:30 Lagunak – Hondarribi (3. mailako kad.)
 22:15 Lagunak – Ategorrieta (Pala. 2. maila nag.)

Otsailaren 1ean ibiliko dira santa eskean Elgoibako kaleetan eta Mendaron

Elgoibarko Izarrakoak hilaren 4an irtengo dira baserriz-baserri

Otsailaren 1ean irtengo dira Etxegiña taldekoak santa eskean Elgoibarrren. 9:00etan batuko dira Parrokia atzeko bolatokian, eta bi taldetan banatuta zeharkatuko dituzte herriko kale eta auzoak. Errosario kalean elkartuko dira bi taldeak, eta ama birjinari salbea abestu ostean, Baltasar elkartean bazkalduko dute. Urtarrilaren 28an eta 30ean egingo dituzte entseguak Kultur Etxeko sotoan, 20:00etan. Intereza duen orok har dezake parte.

Mendaron ere, otsailaren 1ean irtengo dira santa eskeko koruak. Ohi legez, 8:30ean irtengo dira udaletxeko plazatik eta hiru taldetan banatuta, Mendaroko baserri eta kale-auzo guztiak koplaturiko dituzte. 15:00ak aldera, Aizpe elkartean bazkalduko dute, eta ondoren, urte askoan santa-eskean ibilitako hainbat lagun omenduko dituzte: Jabier Urbieta 'Billale', Juanito Loiola, Isidro Astorkia 'Olabaza', Sabin Longarte, Manuel Loiola 'Panizo' Bitoriano Loiola 'Ospas' eta Iñaki Elortza 'Kortabarri'. Santa-eskearen sustatzaileek dei egin diete



mendaroak guztiei egun horretan kantura irteteko.

Elgoibarko Izarrakoak hilaren 4an

Ohitura zaharrari jarraituz, Elgoibarko Izarrako kideak Santa Ageda bezpera egunean irtengo dira baserriz-baserri koplaturiko kantari. 14:30ean batuko dira Kalegoen plazan, eta gauera arte jardungo dute koplaturiko kantari. Parte hartu nahi dutenek hilaren 28rako eman beharko dute izena Elgoibarko Izarrara deituta (943 741 626) edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com helbidera idatzita.

Amaia Sasiain, Leire Sasiain eta Nora Lopezek egin dute debuta dantza txapelketan



Gazteen Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketako Liga joan zen asteburuan hasi zen, eta Lezon jokatu zuten lehenengo kanporaketa. 7tik 13 urtera arteko gazteek hartu zuten parte, eta horien artean Elgoibarko hiru dantzari zeuden: Amaia Sasiain, Leire Sasiain eta Nora Lopez. Dantza txapelketa batean parte hartzen zuten estreinako aldia izan zen hirurentzat, eta dantza eskolako irakasleak jakinarazi du saioa hasi aurretik "oso urduri" zeudela hirurak, baina txukun aritu zirela. Hurrengo kanporaketa Legazpin jokatu dute, eta Gaizka Uranga, Amaia Astigarraga, Oihane Agirrebeña eta Irati Marcos izango dira Elgoibarko ordezkariak.

'Norman' taldearen kontzertua gaur, Kultur Etxeko sotoan

Sinuose taldeak *Norman* taldearen kontzertua antolatu du gaur gauerako. Eibar eta Mutrikuko laukote batek osatzen du taldea, eta rock doinuak egiten dituzte. *Norman* 2007ko amaieran sortu zen, eta 2009an Danbaka lehiaketako finalera eta Bilbo Hiria Pop-Rock Lehiaketako azken fase-rako sailkatu ziren. Urte berean lehen diskoa argitaratu zuten. Gaur taldearen bigarren lana aurkeztuko dute. 23:00etan izango da emanaldia Kultur Etxeko sotoan, eta sarrerak 3 euro balio ditu.



Bideo Forum saioa gaur, Kultur Etxeko hitzaldi gelan

Haizea emakume taldeak bideo forum saioa antolatu du gaur gauerako. *Mis tardes con Margueritte* filma ikusi eta aztertuko dute, Loredi Salegik dinamizatuta. 21:30ean kafea hartuko dute pastekin, eta 22:00etan hasiko da filma. Emanaldia Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da.

Urtarrilaren 30era atzeratu dute Elgoibarko Izarraren batzar orokorra

19:00etan izango da, Kultur Etxeko sotoan

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak joan zen eguaztenean egin behar zuen Bazkideen batzar orokorra, baina atzeratu egin dute. Urtarrilaren 30erako, eguenerako, egin dute deialdi berria. Kultur Etxeko sotoan izango da, 19:00etatik aurrera.

Bazkideen batzar orokorra oso garrantzitsua izango dela ohartarazi du Elgoibarko Izarrak, eta bertara azaltzeko eskaria egin nahi diete bazkide guztiei. 50 urteko lanaren ondoren, Elgoibarko Izarrak ziklo berri bati ekin nahi dio, eta, besteak beste, etapa berria izan eta egin nahi dutenaren berri emango dute batzarraren.

Batzar orokorrera azaltzeko asmoa daukanak aurrez jakinarazi behar du batzarrera azalduko dela, batzarraren landuko diren gaien txostenak banatzeko. Batzarrerako izena emateko: 943 74 16 26 (Imanol) telefonora deitu edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com helbidera idatzi daiteke.

Jatorrizko bertsioko filmak zapatu gauean

Otsailaren 1etik aurrera zapatuetao 22:15eko saioa jatorrizko bertsiotan eskainiko dute. Arratsaldeko saioa beraz, bi-koiztutako bertsiotan eskainiko dute.

Matrikulazio epea zabaldu du AEK euskaltegiak

Elgoibarko AEK euskaltegiak euskara ikasteko matrikulazio epea ireki du. Hainbat maila eta ordutegi daude euskara ikasi, hobetu edo titulo ofizialak ateratzeko. Udalak jarritako baldintzak betetzen dituztenek matrikularen erdia ordainduko dute. Izena emateko edo informazioa eskatzeko, AEK euskategira jo daiteke (PlazaTxikia, 3), 607 601 423 telefonora deitu edo elgoibar@aek.org helbidera idatzi.

Kiko Riverak ez zituen bete antolatzaileen aurreikuspenak



Kiko Riveraren musika emanaldia antolatu zuen Vacuna elkarteak San Anton egunerako, eta mila bat lagun hartzeko karpa egokitu zuten Guass dantzalekua zegoen lekuan. Zeresan handia eman du musika emanaldi horrek herrian, baina ikusle gutxi erakarri zituen. 1.100 sarrera jarri zituzten salgai, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, 580 saldu zituzten. "Ez dira gure aurreikuspenak bete". adierazi du Txarridunako Imanol Urainek. Bere esanetan, asteburu gauean Elgoibarko giroa berpizteko asmoz ekarri zuten Kiko Rivera, eta esan du antzerako ikuskizunak antolatzen jarraitzeko asmoa dutela: "Momentuz, atsedean txiki bat hartuko dugu udaberrira arte-edo, baina ez dugu gure ahaleginean etsiko. Badaukagu buruan artistaren bat edo beste, eta jarri gara harremanetan horietako bat edo besterekin ere", esan du.

Zuhaitz Gurrutxagak Herriko Antzokia bete zuen

Antzezle gisa etorri zen Zuhaitz Gurrutxaga Elgoibarrerera San Anton Egunean, Txalo produkzioak ekoizte-txearen *Hiru* antzezlanarekin, eta Herriko Antzokia bete egin zuen. Loli Astoreka, Miren Gojenola eta Ana Elordirekin batera igo zen aiaziarra Herriko Antzokiko taula gainera, eta estreinakoz herritarren aurrean antzeztu zuen. Aurrez ere jardun izan du herrian kantuan edota bakarriketak egiten, baina antzezle lanetan barixakuan egin zuen debuta. Herriko Antzokira gerturatu zirenek gogotik egin zuten barre, eta txalo zaparrada handi batekin agurtu zituzten artistak.



LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ **606 354 982**
- Emakume gaztea adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **654 938 957**
- Emakume gaztea adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **632 370 798**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Pertsona arduratsua. ☎ **631 004 374**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **636 362 251**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **669 311 385**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **632 253 170**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditut. ☎ **943 741 080**
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ **943 043 975**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentzia onak. ☎ **943 031 329 / 645 366 354**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, eta etxeko lanak egiteko. ☎ **675 358 118**
- Gizonezkoa lan bila. Tabernan zein jatetxean zerbitzari lanetan aritutakoa. ☎ **692 332 871**
- Gizonezkoa lan bila. Pinturan esperientzia. ☎ **617 694 603**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko, garbiketarako egiteko edo zerbitzari lanetarako. ☎ **631 549 224**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Erreferentzia onak. ☎ **691 073 462**
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta gaixoak zaintzeko. ☎ **677 097 015**
- Gizona eraikuntzan lan egiteko prest. Lorezaintzan, pintaketan eta biltegiko mantenu lanean esperientzia. ☎ **628 818 558**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko. Esperientzia daukat. Paperak legez ditut. ☎ **638 863 019**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko. Orduka. ☎ **680 121 252**
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko. ☎ **654 304 337**
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. Garbiketarako egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. ☎ **646 821 678**

- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. ☎ **686 077 316**

ESKAITZA

- Neska gaztea behar da asteburuetan Elgoibarko taberna batean zerbitzari lanetan aritzeko. Itxura ona eta jendearekin tratuan lan egiteko dohaiak izatea eskatzen da. CVA bidali, argazkiarekin: kamarera@hotmail.com
- Adineko pertsona bat zaintzeko norbait behar dugu, Sorraluzen. 50 urte baino gehiago izatea eskatzen da. Interna moduan egingo luke lan. ☎ **677 425 560 / 943 740 187**

ETXEBIZITZAK

- Gela bakarreko etxe polit bat alokatzen dut Elgoibarko erdigunean. ☎ **660 042 159 (Arratsalde)**

BESTELAKOAK

- Bikote batentzako logelarako altzariak salgai. Ume gelarako moisesa, sehaska eta aldagailua ere saltzen ditut. Egoera onean. ☎ **660 606 506**
- Hormako pianoa salgai. Egurrezkoa, kolore iluneko. Egoera onean. ☎ **645 720 601**
- Samsung Galaxy markako sakelako telefonoa aurkitu dut Maala inguruan. ☎ **662 675 714**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **22€** (salmenta). Autoak saltzea: **18€** - Klase partikularrak: **10€** - Bestelakoak: **10€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€** - Klase partikularrak: **8€** - Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



- Beheko solairu batean bizi naiz, eta denona den argi-patiora nire etxetik edo eta bizilagunaren etxetik sartu behar izan da betidanik. Etxe-jabeen batzarrean, patio horretara sartzeko ate bat zabaltea proposatu dugu, baina etxe-jabe batzuk ez daude konforme. Exijitu genezake obra hori egitea?

Legeak dio argi-patioaren eta gainerako elementu komunen mantenu eta berritze lanetarako bizilagunak behartuta daudela euren etxebizitzara sartzeko uztera, beti ere, ez baldin badago leku hortarako beste sarbiderik.

Espreki esaten da etxe-jabe bat derrigortuta dagoela bere etxean eraikinaren zerbitzurako diren berritze lanak edo horri lotutako eta legez ezarritako beste edozein zerbitzu baimentzera.

Komunitateak ate bat zabaldu nahiko balu, erabakia etxe-jabe edo kuotak ordaintzen dituzten guztien adostasunez hartu beharko litzateke.

Gomendioa: Patioa garbitzeko bere etxera sartzeko baimentzen duen bizilagun horrek eskubidea du sortzen dizkieten kalte eta eragozpenen ordaina komunitateari eskatzeko, beti ere kalte hori eragin dela frogatu ahal bada.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak eta muxu bat zure laugarren urtebetetzean, familiakoen partez.



• Zorionak, **Aritz**, 8 urte egin dituzulako. Etxekoen partez, maite zaitugu.



• Zorionak, **Noa**, hilaren 18an 2 urte egin zenituelako. Muxu potolo bat, familiakoen partez. Oso ondo pasatu genuen.



• Zorionak, **Urko**, urtarrilaren 27an 13 urte egingo dituzulako. Arreba Izaroren, gurasoen eta familiako guztien partez.



• Zorionak, **printzesa**, zure bosgarren urtebetetzean. Asko maite zaitugu. Muxu bat familiakoen partez, eta bereziki ahizpa Maileen partez.



• Zorionak, **Onar**, zure hirugarren urtebetetzean. Mila muxu familiakoen, eta bereziki, lru-neren partez.



• Zorionak, **Ego!** Gure kantari txikixak 3 urte astelehenian! Patxo haundi bat familiako danon partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Markel**, zure hamargarren urtebetetzean. Jarraitu etxeko printzesa hain ondo zaintzen. Aita, ama eta Sareren partez.



• Zorionak, **Ibon!** Primeran pasatu genuen zure bosgarren urtebetetze egunean. Muxu bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **Sarabxo!** Muxu erraldoi bat zure hamargarren urtebetetzean.



• Zorionak, **Lander**, bihar 4 urte egingo dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, aiton-amonen partez.




• Zorionak **Jon Maizte-giri** gaur bere urtebetetzea delako! Hamar muxu, etxekoan partez.



• Zorionak, **bikotel** Muxu handi bat, Lorearen partez.



• Zorionak gure mariosorgintxo **Laiari**, etxeko partetik. Hiru urte potolo! Paaa!




• Zorionak, **Uxue eta Elur**, zuen seigarren urtebetetzean, lehengusu eta familiako gainerakoen partez.

PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra
4'50€
Argazki bikoitza
7€
Hirukoitza
9€
Hiru lagunetik gorako taldeak
15€


ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra
3'50€
Argazki bikoitza
6€
Hirukoitza
8€
Hiru lagunetik gorako taldeak
12€

Argazkiak **eguzten eguerdia (12:00etarako)** baino lehen ekarri behar dira
BARREneko bulegora,
edo barren@elgoibarkoizarra.com
e-postara bidali.



Urtarrilaren 27an,
Scalextric txapelketa
Ludotekan,
17:30etik aurrera

Hilabete honetako eskulanean atalean karterak egiten ari gara. Mota eta diseinu guztietakoak. Animatu!



24 barixakua

Bideo forum

21:30 Kafea pastekin

Haizeak antolatuta, bideo forum saioa, Kultur Etxean. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.

Musika

23:00 Kontzertua

Sinuosek antolatuta, Norman taldearen kontzertua Kultur Etxeko sotoan.

25 zapatua

Hitzaldia

08:00 Sargoateko iturria berritzeko irteera

Morkaikok antolatuta, Sargoateko iturria auzoalean berritzeko irteera egingo dute. IMHko aparkalekuan batuko dira, eta autoz joango dira Sargoatera.

Hitzaldia

11:00 Proiektuen bidez lan egiten
Herri Eskolak antolatuta, Kultur Etxean.

Bakarrizketa

20:00 Txemi Parra
Lanbroa kafetegian.

Karta jokoa

16:00 Euskal Herriko mus txapelketa
Elgoibarko kanporaketa, Lanbroa kafetegian.

Karta jokoa

16:00 Euskal Herriko mus txapelketa
Mendaroko kanporaketa, Aitz Beltz tabernan.

27 astelehena

Artea

17:00 Arte tailerra

Haizeak antolatuta, Kultur Etxean.
Mitos sobre la península ibérica izango dute aztergai, Carmen Agirrek gidatutako saioan.

28 martitzena

Literatura

18:00 Literatura tailerra

Haizeak antolatuta, *Las partículas elementales* liburua aztertuko dute, Udal Liburutegian.

30 eguna

Batzarra

19:00 Elgoibarko Izarrako bazkideen batzar orokorra

Urteko batzar nagusia egingo du euskara elkarteak, Kultur Etxeko sotoan.

BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
24 Yudego 25 Fernandez Goizez: Barrenetxea 26 Fernandez 27 Zabaleta 28 Barrenetxea 29 Ibañez 30 Garitaonandia	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

ZINEA

«Sobran las palabras»

24, barixakua: 22:15

25, zapatua: 19:00/22:15

(Jatorrizko bertsioan)

26, domeka: 19:00

27, astelehena: 21:30



«Ernest eta Celestine»

26, domeka: 16:30



«De tal padre tal hijo» (Ongarri)

30, eguna: 21:30





ESKERTZA

LUIS ARRIETA BARRENETXEA

2014ko urtarrilaren 21ean hil zen, 84 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

LUIS ARRIETA BARRENETXEA

2014ko urtarrilaren 21ean hil zen, 84 urte zituela.

“Ez agurrik, ez adiorik gero arte bakarrik”



- Golan bego -



*Luis Arrieta, gizon haundia
gaur ohore eta omen,
lan zintzo eta arriskatua,
zure indar eta kemen
zuk atzo hasitako bidea
gugan bizirik da hemen.*

*Batzuen lanak eta ahaleginak
erakusten du bidea,
denon ametsa egi bihurtuz
hor da ba gure xedea,
Euskal Herria egingo dugu
euskalduna ta askea.*

Luis Arrieta Barrenetxea

Urtarrilaren 21ean hil zen, 84 urte zituela.



I. URTEURRENA

ROSA KALZAKORTA GARAGARZA



*Urtebete bat joan zinela
amama Rosa maitea,
zure izana gure gogoan
ez dugu nahi itzaltzea.
Beti lagundu ta zaintzeko prest
zenuen borondatea.
Zuk ondo erakutsi diguzu
ona zer den izatea.
Eskerrik asko, amama Rosa
zuretzat muxu betea.*

Zure familia

2013ko urtarrilaren 21ean hil zen, 92 urte zituela. I. urteurreneko meza zapatuan, urtarrilaren 25ean, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. Ueldako Unibertsitatea eta Madrilen. Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril. Implantologia Masterreko Irakaslea. Ueldako Unibertsitatea. Kirurgia Masterreko Irakaslea. Salamancako Unibertsitatea. Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. Madrigo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almería, Lleida, Leon, Málaga... Unibertsitateetan.

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea. Diplomaturia Aho Kirurgian. Bartzelonako Unibertsitatea. Hartz-Estetikian Diplomaturia. Madrigo Unibertsitate Konplutentsean. Hartz-Estetikian Diplomaturia. Autran Institutua, Bartzelona. Etengabeko Formakuntza. New York-eko Unibertsitatea. Oklusioan Graduondoa. Anibal Alonso Doktorea.

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetu!



MUTUAK ETA ASEGURUAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGONSTONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetu!

